

HURRENGO ASTEAZKENETIK -AZAROAK 6- TAOren ORDENANTZA BERRIA EGONGO DA BILBON

- **Hainbat alderdi berri agertzen dira ordenantza honetan: paperezko tiketa derrigorrezkoa ez izatea, iruzurrik egon ez dadin zehapenak moldatzea, zama-lanetarako gunetan kontrol handiagoa egotea eta tramiteak sinplifikatzean erabiltzaileen erosotasuna bilatzea.**
- **Garraioko profesionalak derrigorrez erabili beharreko diskoa eduki behar izango dute zamalanetako eremuetan 30 minutuko gehieneko denbora-tartea erabiltzen dela bermatzeko, ordenantzak xedatzen duenaren arabera. Hala, Bilbon salgaien banaketa sustatuko da.**
- **Informazio gehiago: www.bilbao.net.**

Bilbon, 2013ko azaroaren 4an. Hurrengo asteazkenetik -azaroak 6- aurrera, Bilbon indarrean sartuko da Trafiko eta Aparkalekuei buruzko Ordenantza berria, erabiltzaileentzako aldaketa ugari dakarrena.

Besteak beste, tiketa ez da autoan ipini behar izango, erabiltzaileen mugikortasuna errazte aldera. Horrela, zerbitzuan alta eman eta Interneten bidezko ibilgailuan tiket birtuala ipini ahal izango du, hurrengo estekaren bidez: <http://teletao.mobi/teletaoweb>. Udal webgunean ere eskura dago: www.bilbao.net.

Herritarren erosotasuna ere kontuan hartu da, izan ere, ordenantza berrian TAOren eremuetan hamabost minutuz doan utzi ahal izateko aukera sartu da. Horrela, erosketa edo errekadu bat egiteko ibilgailua aparkatzeko denbora-tarte justua uzten du. Gainera, hemendik aurrera, Egoiliar Txartela ez da urtero berritu behar izango. Egoiliar Txartelak "sine die" edo behin betiko egongo dira indarrean, txartela emateko baldintzak aldatzen direnean edo bere titularrak zerbitzuan baja egiteko asmoa daukanean izan ezik.

Abusurik ez egoteko eta iruzurraren aurka egiteko zehapenak

Bestetik, abusuak eta zitalkeria baztertzeko eta Egoiliar Txartelen edo Desgaituentzako Aparkatzeko Txartelen erabileran iruzurrik ez egoteko, Ordenantza berriak, besteak beste, zigor handiagoak ezarri ditu inork araua hausteko asmorik azaldu ez dezan.

Oso larritzat jotako arau-hausteei dagokienez, kasu larrietarako gorde dira, esate baterako, ikur faltsua edo manipulatu erabiltzea, ambulanzietarako lekuetan aparkatzea, desgaituentzako aparkalekuak okupatzea edo desgaituen ikurra iruzurrez erabiltzea. Horrelakoetan, 200 euroko zigorra egongo da eta ezin izango da isuna aldeztatik aurretik parkimetroan ordaindu zenbatekoa murrizteko asmoz. Gainera, horren ondorioz, kasu larrietan, aparkatzeko ikurrik gabe geratuko da eta hiru urtez beste bat lortzeko eskubiderik ez du izango.

Arau-hauste larrien kasuan, adibidez, zamalanetako eremuetan baimenik gabe aparkatzea, eremu berean aparkatzea hiru orduko derrigorrezko epea amaitu gabe, eta titulurik gabe aparkatzea, isuna 150 eurokoa da. Arau-hauste arinetan, oster, 100 euroko isuna egongo da. Azken hauek hurrengo kasuetan ematen dira: Udalar Egoiliar Txartela emateko eskubidea kreditatzeko baldintzetariko bat amaitu edo galdu dela ez jakinaraztea, derrigorrezko ikurrik gabe aparkatzea edo balio ez duen bat ipinita zein baimendutako denbora-tartea gaindituta egitea.


Arau-hauste larrien zein arinen kasu bietan, dagozkion zehapenak aldeztatik ezeztatzen aukera izango dute zigorra ipini ondorengo egutegiko egun biko epearen barruan (larunbatak barne). Horretarako, parkimetroak edo Interneten bidezko urrunetik ordaintzeko aukera izango dute: <http://teletao.mobi/teletaoweb>.

Hala, zigorrak 30 eta 20 euroraino murriztu daitezke, hurrenez hurren, eta arau-hausleak errekurtsio administratiboa aurkezteari uko egingo dio.

Gainera, Ordenantza berrian, aparkatzeko tiketeen ordaindutako denbora-tartea gainditzeagatik jarritako zehapena automatikoki ezeztatzen aukera mantendu da, betiere gainditutakoa ordu erdi baino gutxiagokoa denean edo arazo zehatzen bat gertatu denean, hau da, ordaintzeko asmoa egon denean. Halakoetan, 30 minutuko tiket osagarri berria ateratu daiteke. Aukera hori eremu bakoitzean ezarritako epemuga ez gainditzean soilik izango da balioduna.

Salgaiak 30 minututan banatzea.

Salgaiak Bilbon banatzeko eta garraio profesionalen lana errazteko asmoz, araudi berrian zamalanetarako eremu erreserbatuen erabileran esijentzia handiagoak



agertzen dira, erreserbatutako orduetan eremu horiek zamalanetarako erabiltzea ibilgailu industrial edo mistoetarako mugatuta, inoiz ez turismoetarako.

Aparkatzeko gehieneko denbora-tartea ordu erdikoa izango da eta muga horren kontrola kartoizko disko baten bidez egingo da. Ezin izango da eskaneatu edo erreproduzitu eta ibilgailuaren haizetakoan kokatu beharko da, kanpotik erraz ikusteko moduan eta horretan bertara heldutako ordua ipini beharko da.

Diskoak kostu-prezioan erosi ahal izango dira (1€) asteazkenetik aurrera Lertsundi, 5 helbidean, 9:00etatik 13:30ak arte eta 15:30etik 20:00ak arte, astelehenetik ostiralera.

Araudi berria ezarriko den egunetan, diskoa ipintzeko obligazioa betetzen ez duten garraiolariei ohartaraziko zaie, haien ibilgailuetan informatzeko foiletoak utzita.

Era berean, zamalanetarako erreserbatutako eremuetan modu progresiboan eta aste horretatik aurrera, seinalizazio berria egongo da, horiek nola erabili behar den bezala informatzeko.